


Osasun Eskualde Oinarrizkoa


Corella



Observatorio de Salud Pública de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren Behatokia



Fuente: SITNA-ISPLN



1. Argibide orokorrak

	Eskualdeko balioa	Nafarroa
Biztanleria (2023):	13.027 Emak.: %49,5 Giz.: %50,5	672.155 %49,5 %50,5
Batez besteko adina:	Emak.: 42,4 Giz.: 40,9	46,3 43,2
Ugalkortasun-tasa:	%114,7	-
Gazteen mendekotasunaren indizea:	% 28,9	%24,7
Zahartzaroko mendekotasun indizea:	%28,6	%32,0
Gainzahartzea:	%18,8	%17,2
Atzerritan jaiotako biztanleak:	%27,3	%17,9
Bizi itxaropena:	Emak.: 86,1 Giz.: 79,9	86,8 81,3
Biztanleria-densitate:	130,8 biz.km ²	68,9 biz.km ²
Zabalera:	99,52 km ²	9758,6 km ²
Zer Eskualdetakoa den:	Ebro Ardatza (ikus mapa)	
Udalerriak:	Castejón, Corella	

2. Komunitatea eta osasuna

Faktore soziodemografikoak eta ingurumenekoak.

Corellako osasun-eskualde oinarrizkoan, beste eskualdeekin alderatuta, bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonezkoen etheen ehunekoa (% 15,4) txikia da. Hala ere, emaitza txarrak ditu datu hauetan: bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko emakumezkoen etheen ehunekoa (% 44,5),

DBHko graduatu titulurik gabeko 18-24 urte bitarteko gazteen ehunekoa (% 11,7), langabezia-tasa (% 15,0), diru-sarreraren desberdintasuneko Gini indizea (% 33,3) eta baso-azalera (% 1,5); gainera, pobrezia larriko arrisku-tasa handiena du (% 13,3).


Osasunari dagozkion emaitzak. Corellako osasun-eskualde oinarrizkoa eskualdeen laurden hoberenean dago datu hauetan: antsiolitikoen eta antidepresiboen kontsumoa (emakumeen % 14,4 eta gizonen % 7,5) eta HbA1c-ren neurketa duten diabetikoak (% 83). Aitzitik, eskualdeen laurden txarrean dago datu hauetan: 3 patologia kroniko edo gehiago dituzten pertsonak (emakumeen % 7,0 eta gizonen % 13,5), 2 motako diabetesa diagnostikaturik dutenen prebalentzia (emakumeen % 7,0 eta gizonen % 10,7), pisu gehiegi duten 6tik 9 urtera bitarteko neskak (% 38,1) eta soilik amagandik edoskitzen duten 6 hilabeteko haurrak (% 25,5).

Inkesta-adierazleak. Hurrengo emaitza doitu* hauek Ebroko Ardatza eskualdeari dagozkio (LAP zonifikazioa); Corellako eskualde oinarrizkoa zona horretan dago. Ebroko Ardatzak emaitzarik onena du zenbait adierazletan: alkohola astero edatea (gizonek: % 21,9; emakumeek: % 5,1), frutak eta barazkiak egunero jatea (gizonek: % 28,0) eta ongizate txikia izatea oro har (gizonek: % 16,7). Aitzitik, emaitzarik txarrean du hiru adierazletan: bizimodu sedentarioa izatea (gizonek: % 25,4), gehiegizko pisua izatea (15 urteko edo gehiagoko gizonek: % 66,9) eta tabakoa egunero erretzea (emakumeek: % 14,4).

***Oharra:** Inkesta-adierazleak eta hala eskatzen duten beste adierazle batzuk sexuaren eta adinaren arabera doitu dira, eskualdeen arteko konparazioa egin ahal izateko. Adierazle gordinak hurrengo orrialdearen behealdean agertzen dira.

3. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira adierazle sorta bati dagozkion eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoarekin alderaturik (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzo osoarekin alderaturik. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero, haien [banakako fitxak](#) ikus daitezke Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1: Biztan. Mug. Nat.; 2, 6-7: SIPNa (Nafarroako Biztanleriaren Sistema Integratua); 3: Biztan. Akt. Ud. Est.; 4-5: Errenta. Est.; 8: SIGPAC (Nekazaritzako Lurzatiaren Informazio Geografikoko Sistema); 10, 24-27, 30-31: Oinarritzko osasun-laguntza; 10-21: ESyCV (Gizarte eta Bizi Baldintzen gaineko Inkesta); 22-23: NOPLOI; 28-29: Farmazia prestazioa

Nafarroa Atlantikoaren adierazleak (10-21) LAP zonifikazioa (NASTAT). Irudian adierazitako balioen kopurua: 4.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzarekin alderatuz (bizimoduaren, morbiditatearen eta osasun sistemaren adierazleentzako eginiko kontrastea).

1. Urteko batez besteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14 eta 19 urte bitarteko emakumeetan; **2.** DBHko graduatu-titulurik edo haren baliokiderik gabeko 18tik 24 urtera arteko gazteen %; **3.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean; **4.** Bizikideen errentaren baturak pobrezia larriaren atalasetik behera egiten duen etxeetan bizi diren pertsonen %; **5.** Diru-sarreraren desberdintasunaren Gini indizea, datu baxuagoak berdintasun handiagoa adierazten du; **6 eta 7.** Bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko pertsonen %, adin horretan familia-etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **8.** Baso-azaleraren %; **9.** 170-190 egunetara soilik amagandik edoskitzen duten haurrak %; **10 eta 11.** Frutak eta barazkiak egunero jaten dituzten pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 33,5 eta gizonak 27,6); **12 eta 13.** 15 urteko edo gehiagoko sedentarioen % doituia: ariketarik egiten ez dutela diote (t. gordina: emakumeak 32,7 eta gizonak 24,9); **14 eta 15.** Astean 100 g alkohol baino gehiago hartzen dutenen % doituia (t. gordina: emakumeak 5,2 eta gizonak 21); **16 eta 17.** Tabakoa egunero hartzen duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 13,3 eta gizonak 18,5); **18 eta 19.** Ongizate orokor baxua duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 28,2 eta gizonak 17,7); **20 eta 21.** Pisu gehiegi, gehiegizko pisua edo obesitatea duten 15 urte edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 37,5 eta gizonak 66,9); **22 eta 23.** Pisu gehiegi -gehiiegizko pisua edo obesitatea duten- 6tik 9 urtera arteko haurren prebalentzia doituia, OMEK haurren hazkuntzarako emaniko ereduaren arabera (T. gordina: emakumeak 39,9 eta gizonak 31,1); **24 eta 25.** 2 motako diabetesa duten 20 urte edo gehiagoko pertsonen prebalentzia doituia (T. gordina: emakumeak 7,3 eta gizonak 10,1); **26 eta 27.** 3 patologia edo gehiago dituzten 65 urteko edo gehiagoko pertsonen % doituia (t. gordina: emakumeak 10 eta gizonak 14,2); **28 eta 29.** Azken urtean, multzo hauetako bateko 3 ontzi edo gehiago hartu dituzten pertsonen % doituia: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (t. gordina: emakumeak 14,5 eta gizonak 6,8); **30.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatua (HbA1c-a) neurtu duen biztanleriaren %; **31.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala (TA) neurtu zaien biztanleriaren %.